

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Hasierako onarpena ematea animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen udal ordenantzaren hirugarren aldaketari

Udalbatzak, 2017ko apirilaren 27an egindako bilkuran, hasierako onarpena eman zion animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen udal ordenantzaren 10.2 artikulua aldatzeari, espedientean jasota dagoen edukiarekin.

Espediente hori jendaurrean jartzen da udal honen obra eta hirigintza arloan, 30 egunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, aukera egon dadin aztertzeko eta egoki jotzen diren erreklamazioak eta oharrak aurkezteko.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, espedientea behin betiko onartutzat joko da.

Amurrio, 2017ko maiatzaren 11

Alkatea

M. JOSUNE IRABIEN